BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1141

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, hotzean ijeztearen bidez soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Amurrioko udalerrian eta Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 27an, Jesús María Larrakoetxea Larrabide jaunak, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Amurrioko (Araba) udalerrian hotzean ijeztearen bidez soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Amurrioko Udalak 2006ko urtarrilaren 27an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta dokumentazio tekniko hau aurkeztu zituen:

● Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren Ingurumeneko Baimen Bateratua izapidetzeko Proiektu Teknikoa (2006ko abendua); eskaerarako dokumentazioa jasotzen duen liburukia, eranskinen bi liburuki, planoen liburukia eta Lurzoruaren Egoerari buruzko Aurretiazko Txostena jasotzen duen liburukia aurkeztu zituen.

● Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren Ingurumeneko Baimen Bateratua izapidetzeko Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua), liburuki batean aurkeztua.

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena, 2001eko apirilaren 2koa, eta irekitzeko baimena, 2005eko urriaren 20koa, zituen, hotzean ijeztearen bidez soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jarduerarako. Halaber, enpresa sustatzaileak isurtzeari dagozkion baimenak zituen, Iparraldeko Ur-konfederazioaren Ur Komisariak 1994ko uztailaren 15ean emandakoa, Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera; hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena zuen, 2001eko azaroaren 20koa eta 2003ko urriaren 23ko zabaltzea; eta industriako hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa, 2001eko irailaren 11koa, hondakinei buruz indarrean den araudian xedatutakoaren arabera.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Amurrioko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari egin zitzaien kontsulta.

2007ko martxoaren 23an Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 9an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri ziren 30 egun balioduneko epean, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak

aurkezteko, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen, 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegazio bat dagoela egiaztatu da, eta ebazpen honen I. eranskinean jaso da laburbildurik.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 6an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Amurrioko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 11n, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren kasuan, honako baimenak behar ditu: hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena, industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa, jabari publiko hidraulikora isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkionak eta lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzearen gainekoak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuk ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak

ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Amurrioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, metalak eta plastikozko gainazalak tratatzeko sektorearentzat Europako Batzordearen 2006ko abuztuko erreferentziako agiriaren (BREF) edukia kontuan hartu da (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics). Gainera, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoa da Ontzi eta Ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta betearazten duen Araudia onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 9an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laudioko (Araba) udalerriko Irukurutzeta kaleko 8. zenbakian helbide soziala eta IFK: A-01140227 zenbakia duen Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Amurrioko udalerrian hotzean ijeztearen bidez soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jarduerarako, eta Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Halaber, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzen kalterik gabe.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Metalen eta plastikozko materialen

gainazala prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» izenekoan.

Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresa Saratxoko industrialdean kokatzen da, Amurrioko udalerrian, eta guztira, 176.729 m^2 betetzen ditu.

Fabrikak soldadurarik gabeko 15.640 tona altzairu herdoilgaitzezko hodi produzitzen ditu urtean.

Erabiltzen dituen energia-iturriak energia elektrikoa (ijezketa-prozesuan, koipegabetzeko Guinea labeetan, akabera-prozesuan, makina garbigailuan eta desugertze eta neutralizazioan garbiketa-garabietan erabiltzen da) eta gas naturala (ijezketa-prozesuan, koipegabetzeko hipertenplaketa-labean, desugertzean eta garbiketa murgilduan eta berogailuan erabiltzen da) dira.

Prozesuaren fase nagusiak ondorengo puntuetan zehaztu daitezke:

Hotzean ijeztea:

Amurrioko TTI fabrikak Laudioko fabrikan estruitutako hoditeria lehengai gisa erabiltzen du. Fabrikazio-prozesua funtsean hotzean egindako erredukzio-tenkatze prozesuan oinarritzen da, eta horretarako, nahi den diametroaren arabera, 9 ijezketa-tren daude, kanpoko diametroentzat ¾ eta 4 ½ arteko gaitasuna dutenak (19-114,3 mm).

Ijezketa-eragiketaren barruan, hodiak kanpotik eta barrutik automatikoki olioztatzen dira. Olioak zirkuitu itxian funtzionatzen du.

Ebaketa:

Nahi den ebaketa lortu ondoren, makinatik irteterakoan hodiak automatikoki ebakitzen dira aurrez ezarritako luzeretan. Plasmarekin ebakitzeko 5 makina, urragarriarekin ebakitzeko 2 makina eta disko-zerra bat daude.

Aurretiazko koipegabetzea:

Ijezketatik ateratzerakoan, ebaketaren ostean, hodien barrualdea koipegabetzen da, 90 ºC-ra dagoen koipegabetzaile alkalinoa ponpatzearen bidez, eta ondoren xukatu egiten da.

Koipegabetzea:

Tenkatzearen ondorengo eragiketa batean, hodiak 90 ºC-ko soluzio alkalinoan koipegabetzen dira, 12 m^3-ko 4 upeletan, hodi murgilduaren bidez berotzen direnak (gas naturala). Eragile koipegabetzailearen soluzioak zirkuitu itxian funtzionatzen du. Koipegabetzeko bi lerro daude.

Koipegabetze-soluzioaren balio-bizitza areagotzeko eta aldi berean «koipegabetze-lohiak» hondakin arriskutsua sortzea minimizatzeko, fabrikaren kanpoaldean seriean konektatutako bi dekantagailuz osatutako instalazioa dago. Garbiketa-andel gisa funtzionatzen dute, eta horrela, koipegabetze-soluzio iragazia Pilgerren upeletara itzultzen da eta dekantatutakoak neutralizazio-instalazioari lotutako «agortuak» izeneko putzura purgatzen dira.

Irakuzketa:

Hodiak garabiaren bidez irakuzketa-upeletara garraiatzen dira. 50 ºC-ra dauden edateko uraren bi upel daude, eta horiek koipegabetze-upelen beroa aprobetxatuz berotzen dira.

Koipegabetze azidoa:

Hodien barrualdeko eta kanpoaldeko garbiketa hobetu eta modu horretan hodiaren gainazalaren kalitatea eragin dezakeen konformazio-prozesuko edozein olio-arrasto ezabatze aldera, hodiak desugertze-gunera bidaltzen dira eta bertan, aldez aurretik irakuzi ondoren, murgildu egiten dira.

Denbora labur batean HF eta HNO_3 soluzio batean irakuzten dira eta ondoren, berriz ere urarekin irakuzten dira.

Tratamendu termikoa:

Gas naturalez elikatutako labeetan tratamendu termikoa gauzatzen da eta hodiak bertara eramaten dira garabian edo bagonetan. Guinea fabrikazioko 2 hipertenplaketa-labe daude.

Hodien tratamendu termikoa 5-6 t/h ahalmena eta 1.050 eta 1.180 ºC arteko T.ª gama duten, ezaugarrien eta dimentsioen arabera, hipertenplaketa-labeetan gauzatzen da.

Irteeran hodiak biltzeko euskarri batean iraultzen dira eta garabiaren eta bagonetaren bidez, akaberako lerroen bururaino eramaten dira.

Labeetan zirkuitu itxian uraren bidezko hoztea dago eta helburu horretarako putzu batzuk daude nabearen kanpoaldean, mendebaldeko hegalean.

Zuzenketa, ebaketa, muturren bizar-kentzea:

Akaberen gunean, hodiek hainbat mekanizazio-eragiketa jasaten dituzte dimentsioak eta kalitateak doitzeko. Bi zuzenketa- eta ebaketa-lerro daude.

Instalazioa ultrasoinuen bidezko kontrol batekin osatzen da; bi sarrera-mahai eta hodien irteera, ultrasoinuen makina, Magnaflux eta zirkuitu itxiko ur-sistema ditu.

Azal-tratamendua:

Ondoren, hodiek beroan egindako pasibatzea jasaten dute, azido nitriko eta fluorhidrikoko bainuetan, eta jarraian, beroan egindako garbiketa.

Azal-tratamenduen gunean ondorengo instalazioak daude:

● Desugertze-pasibatze upelak, koipegabetze eta garbiketa upelak, hiru azido-upelekin, koipegabetze-upel batekin eta garbiketako lau upel eta ontziz aldatzeko beste upel bat.

● Pasibazio-gasen garbiketa eta neutralizazioa. Instalazioak gasen 2 lurrun-erauzgailu eta garbiketa-dorre ditu.

● Uren tratamendua. Neutralizazioa kare-esnearekin eta dekantazioa.

Upelen inguruneko lurrun azidoak nabetik kanpoaldera irteera zuzena duten 6 erauzgailu zentrifugoren bidez erauzten dira. Upelen gaineko bilketa zuzenerako, puzteko eta gasak xurgatzeko sistemak daude, eta kanpoaldean kokatuta dauden bi ekipo garbitzaileetaraino bideratzen dituzte.

Azidoak berreskuratzeko, Amurrioko TTI-ak Scanacon izeneko sistema bat du. Sistema honen bidez, guztiz berreskuratu daitezke, ioi-elkartrukeko erretxina batetik pasatu ondoren.

Irakuzketa hotzean:

Giro-tenperaturan dagoen ur neutralizatuko bainuan hodiak murgiltzea.

Presio bidezko garbiketa:

Hodiak garbigailura eramaten dira arrabolen bidean. Gune honetan giro-tenperaturan dagoen presiozko uraren injekzioa gertatzen da, hodiaren barrutik eta kanpotik.

Garbiketa-urak Nerbioi ibaiaren ibilguaren ondoko lur sailaren ekialdean dauden 500 m^3-ko aireko andeletako batera bideratzen dira. Ur hau beste industriako erabilera batzuetarako aprobetxatzen da, esaterako, hozteko edo bainuak prestatzeko.

Irakuzketa beroan:

Arrabolen bidetik garraioa, garabiaren bidez mugitzea eta 70 ºC-ko ur beroko bainuan murgiltzea. Bainua errekuntza murgilduaren bidez berotzen da.

Lehorketa:

Hodiak garabiaren bidez igotzen dira, airean lehortzen dira eta sailkatutako kutxatilategietan uzten dira, motaren eta ezaugarrien arabera.

Bukaerako kontrola eta markaketa:

Hodiak plataforman eta Kamag kamioian garraiatzen dira markatzeko nabera. Produktu bukatuek akatsak (korronte induzituak), altzairu-maila (espektrometria) eta neurketa antzemateko kontrola jasaten dute, markatu aurretik. Halaber, ikuskapen ofizialerako mahaiak eta elementuak daude.

Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresan dauden isurtze atmosferikoen iturriak ondorengoak dira:

● Errekuntza-prozesuetan sortutako isurtzeak (berokuntza-galdarak, hipertenplaketa-labeak, koipegabetze-beroketa, desugertze-pasibatze bainuaren beroketa).

● Ebaketa eta bizar-kentze eragiketetan sortutako partikulen isurtzeak.

● Lurrunen isurtzeak (ijezteko makinen, koipegabetzearen, desugertze eta pasibatzearen eta disolbatzaile bidezko garbiketa-eragiketen lurrunak).

Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren jarduerak uretara egiten dituen isurtzeak lau efluente bereizitan zatitzen dira:

● Industria-urak: Neutralizazio-instalazio batean tratatzen eta kontrolatzen dira, ondoren desugertze-garbiketen upeletara, gasen garbiketa-dorreetara, kare-esnearen prestaketara, desugertze-bainuetara eta desugertze-bainuen garbiketara birzirkulatzeko. Soberakina Aceralavaren hozte zuzenaren zirkuitura bideratzen da, eta beraz, ez da isurketaren benetako isurtze bat. Beraz, Amurrioko Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren jarduerak ez du industriako hondakin-urik isurtzen.

● Hozte-urak: Amurrioko Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak zirkuitu itxian hozteko 5 dorre ditu; ponpaketa-ekipo bat du, ekipoak hoztean eta fabrikako prozesuetan erabiltzen den ura birzirkulatzeko.

● Ur sanitarioak: Komun, zerbitzu eta aldagelen bi gune desberdinetan sortutako urak. Hobi septikora bideratzen dira eta azkenean, Nerbioi ibaiaren ibilgura isurtzen dira.

● Euri-ur garbiak: Fabrikaren azalera guztian biltzen dira eta ibaira bideratzen dira.

Honako hauek dira Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak aplikatzen dituen eta Europako Batzordearen metal eta plastikoen gainazalak tratatzeko (altzairu herdoilgaitzaren tratamendua) sektorerako (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics.) 2006ko abuztuko erreferentziako dokumentuan (BREF) jasotzen diren teknika erabilgarri onenak: aurretiazko tratamendu mekanikoetatik sortutako olioak eta koipeak erabiltzerakoan minimizazioa eta optimizazioa; tenperaturaren kontrol automatikoa prozesuko upel guztietan; prozesuko uren malutapena, neutralizazioa eta berrerabilpena; substantziak gehitzea prozesuko disoluzioaren biskositatea murrizteko; upeletako azidoen eta burdinaren kontzentrazioaren kontrola analizatzaile automatikoarekin; bainuen birsortzea ioi-elkartrukearen bidez; erabilitako koipe-kantitatea erregulatua, soberakina berreskuratuz eta dekantagailu bikoitzeko sistema batekin; hondakin-uren tratamendua (hidroxidoak karearen bidez prezipitatzea eta eragile malutatzaileen erabilpena, fluoruroaren eta karea duten substratuen prezipitazioa, dekantazioa).

Bigarrena.– Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak Amurrioko udalerrian sustatutako hotzean ijeztearen bidez soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintza eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren Amurrioko instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren Amurrioko instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barruko diametroa	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	1000607-01	Pilger 1/8	15	0,4	C	500.152	4.765.204
2	1000607-02	Pilger 2/8	15	0,4	C	500.151	4.765.200
3	1000607-03	Pilger 3/8	15	0,4	C	500.153	4.865.206
4	1000607-04	Pilger 4/8	15	0,4	C	500.157	4.765.212
5	1000607-05	Pilger 5/8	15	0,4	C	500.089	4.765.210
6	1000607-06	Pilger 6/8	8	0,4	C	500.017	4.765.247
7	1000607-07	Pilger 7/8	8	0,4	C	500.017	4.765.247
8	1000607-08	Pilger 8/8	8	0,4	C	500.017	4.765.247
9	1000607-09	5, 6 eta 7 upelak (koipegabetzea) Gas naturaleko erregailua	12	1,2	C	500.042	4.765.275
10	1000607-10	1, 2, 3 eta 4 upelak (koipegabetzea) Gas naturaleko erregailua	12	0,3	C	500.098	4.765.242
11	1000607-11	1 eta 2 upelak (1. gas-garbigailua)	16	1	C	500.190	4.765.255
12	1000607-12	5 eta 6 upelak (2. gas-garbigailua)	16	1	C	500.197	4.765.250
13	1000607-13	Soldatzea, galdaragintza	3	0,2	C	500.160	4.765.276
14	1000607-14	Beroketa, koipegabetzea, desugertze-eremua Gas naturaleko erregailua	12	0,01	C	500.168	4.765.233
15	1000607-15	Pilger 9	0,82	0,28	C	500.017	4.765.247

Enpresak isurtze ez-konfinatuen deskribapen-azterketa aurkeztu beharko da, bereziki konoak iraultzetik eta karea garraiatzeko uhaletatik sortutako isurtzeena. Azterketa horretan aipatu isurtzea saihestu, edo hori ezinezkoa denean, isurtze horiek minimizatzeko hartutako neurri zuzentzaileak jaso beharko dira.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
2	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
3	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
4	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
5	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
6	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
7	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
8	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
9	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
10	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
11	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
	Guztizko kromoa (Cr)	0,2 mg/Nm^3
	Hidrogeno fluoruroa (HF)	5 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	500 mg/Nm^3
	Sufre oxidoak (SO_x)	10 mg/Nm^3
12	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
	Guztizko kromoa (Cr)	0,2 mg/Nm^3
	Hidrogeno fluoruroa (HF)	5 mg/Nm^3
	NO_x	500 mg/Nm^3
	Sufre oxidoak (SO_x)	10 mg/Nm^3
13	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
14	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
15	Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) (1)	
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3

(1) Lortutako emaitzen arabera, isurtzeko muga ezartzeko aukera aztertuko da.

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG bezala neurtuta), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoek isurtzeko muga-balioak gainditzen ez badituzte eta ordubeteko neurketa batek ere isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu (1,5etik gorako faktorea).

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Altzairu herdoilgaitzezko hodien fabrikazioa.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.22.

Isurketa -puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Ur sanitarioak	Komun, zerbitzu eta aldagelen gune desberdinak	Nerbioi ibaia	Nerbioi	I	X: 500.103 Y: 4.765.383
2	Ur sanitarioak	Komun, zerbitzu eta aldagelen gune desberdinak	Nerbioi ibaia	Nerbioi	I	X: 499.629 Y: 4.764.515

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. eta 2. isurketak: Ur sanitarioak.

Orduko puntako emaria	3 m^3
Eguneko gehienezko bolumena	20 m^3
Urteko gehienezko bolumena	6.000 m^3

Sustatzaileak isurketa nagusiaren Adierazpena aurkeztu beharko du, aplikatu beharreko formulario guztiak behar den bezala beteta.

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgurako isurketen ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) Ur sanitarioen isurketa:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH	5,5-9,5
OEK	160 mg/l
OEB5	40 mg/l
Detergenteak	2 mg/l
Olioak eta koipeak	20 mg/l
Solido esekiak	80 mg/l
Amoniakoa	15 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik hartzen ditu barne eta, batez ere, Uraren abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko Atariko, I, IV, V, VI eta VIII. Tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen substantzia arriskutsuak.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazteko instalazioak edo hondakin-uren neurri zuzentzaileek funtsean hobi septikoak dituzte ur sanitarioak tratatzeko.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean

ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kontrol-kutxeta bat jarriko da bukaerako isurketa bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_b \times C_{m.}$

$C_m = C_2 \times C_3 \times C_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_b = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

C_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

C_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

C_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1 eta 2 isurketak: osasun erabilerako urak:

V: Bolumena:	V = 6.000 m3 / urtea
Pb: Hondakin-ura: Hirikoa	Pb = 0,01202 €/m^3
C2: 1.999 biztanlera arte baliokidea	C2 = 1,0
C3: Tratamendu egokirik gabe	C3 = 2,5
C4: Kategoria-eremua: I	C4 = 1,25

$C_m = 1 \times 2,5 \times 1,25 = 3,12500$.

$P_u = 0,01202 \times 3,12500 = 0,03756$ euro/m^3.

(IKK): Isurien Kontrol-kanona = 6.000 × 0,03756 = 225,36 euro/urte.

Kanonaren zenbatekoa ez da aldatuko isurtzeko baimenaren baldintzak edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak baimenaren titularrari urte horri dagokion isurien kontrol-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio.

Isurien kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu- eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin (TRLAren 113.7 artikulua).

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideak.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Amurrioko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- 1. prozesua: «Ijezketa hotzean».
  - 1. hondakina: «Ijezketa-olio halogenatua».
    - Identifikazioa: A01140227/100005081/1/1.
    - Hondakinaren kodea: Q5//D15//L8//C42/51//H5/6//A231(1)//B3124.
    - EHK: 120106.
    - Urtean sortutako kantitatea: 100,83 tona.

Hodiak murriztu-tenkatzeko eragiketetan sortzen da ijezketa-trenetan; olio halogenatu erabilia da.

Babesteko kaiola duen eta hondakin horrentzat identifikatutako plastikozko edukiontzian jasotzen da; biltegiratu egiten da baimendutako kudeatzaileari eman arte.

- 2. prozesua: «Hodien eragiketak».

  ○ 1. hondakina: «Koipegabetze alkalino agortua».

  – Identifikazioa: A01140227/100005081/2/1.

  – Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C24//H8//A231(1)//B3124.

  – EHK: 110107.

  – Urtean sortutako kantitatea: 701,92 tona.

Hodiak koipegabetzeko eragiketetan sortzen da; NaOH oinarria duen soluzio alkalinoa da, gatz ez-organikoak eta garbiketa-eragileak nahasten dituena eta metalezko partikulak (herdoil-azala) ditu.

Koipegabetzeko upeletatik nabearen kanpoaldean estalpean dagoen koipegabetze-hondakinen andelera eramaten da, eta bertatik zuzenean jasotzen da baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

  ○ 2. hondakina: «Koipegabetze alkalinoaren lohiak».

  – Identifikazioa: A01140227/100005081/2/2.

  – Hondakinaren kodea: Q7//D9//L-P27//C24//H8//A231(1)//B3124.

  – EHK: 110107.

  – Urtean sortutako kantitatea: 96,52 tona.

Ijezketa-trenen mahaien azpiak garbitzeko eragiketetan sortzen da; soluzio alkalinoa da, gatz ez-organikoak eta garbiketa-eragileak nahasten dituena, eta metalezko partikulak ditu.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoian jaso eta biltegiratzen da, baimendutako kudeatzaileari bidali arte.

- 3. prozesua: «Akabera».

  ○ 1. hondakina: «Azido nitriko agortua».

  – Identifikazioa: A01140227/100005081/3/1.

  – Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H8//A231(1)//B3124.

  – EHK: 110105.

  – Urtean sortutako kantitatea: 964,33 tona.

Hodien desugertze-pasibatze eragiketetan sortzen da; HNO_3 eta HF nahasketa eta metalezko partikulak dituen hondakin azidoa da.

Sortzen den puntuan jasotzen da zuzenean baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

  ○ 2. hondakina: «Azido sulfuriko agortua».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//D9//L27//C23//H8//A231(1)//B3124.

– EHK: 110105.

– Urtean sortutako kantitatea: 181,12 tona.

Hodien desugertze-pasibatze eragiketetan sortzen da; H_2SO_4 eta HF arteko nahasketa eta metalezko partikulak dituen hondakin azidoa da.

Sortzen den puntuan jasotzen da zuzenean baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 3. hondakina: «Aerosolak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/3/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C40//H3B/5//A210//B3124.

– EHK: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Likido sarkorren poto hutsak dira. Big-bag-etan biltegiratzen da erabiltzen den gunean. Hondakin honentzat ez dago kubeta bereizirik; lurzoru estankoan jartzen da.

Sortzen den puntuan jasotzen da zuzenean baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

● 4. prozesua: «Gas efluenteak garbitzea».

Zikloiaren bidezko lurrunen arazketa-sistemaren hondakinak prozesuan berrerabiltzen dira; gas-ikuzketatik eratorritako urak hondakin-uren tratamenduaren prozesura bideratzen dira bertan neutralizatu daitezen. Prozesu honetan sortzen diren bestelako hondakin arriskutsuak beste prozesu batzuetako izen bereko beste batzuekin kudeatzen dira; batera kodetuta agertuko dira Zerbitzu Orokorrak eta/edo Hondakinak Elkartzea prozesuetan.

● 5. prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Ur azidoen neutralizazio-lohiak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//L-P27//C24//H5//A231(1)//B9301.

– EHK: 190205.

– Urtean sortutako kantitatea: 578 tona.

Neutralizazio-instalazioan sortzen da, «Gas efluenteen garbiketa» prozesuan gas-garbiketaren eragiketetatik eta «Akabera» prozesuan hodien garbiketa eragiketetatik datozen ur azidoen kare-esnearen bidez.

Gatz metaliko prezipitatuak dituzten lohiak dira.

Sortzen den lekutik zuzenean erretiratzen da, baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

○ 2. hondakina: «Prentsa-iragazkien lohiak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/5/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//S27//C24//H5//A231(1)//B006.

– EHK: 190205.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Neutralizazio-instalazioko lohietan bildutako ura erauzteko eragiketan lortutako lohiak dira. Big-bag-etan biltegiratzen dira. Hondakin honentzat ez dago kubeta bereizirik; lurzoru estankoan jartzen da, nabearen barruan.

● 6. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A231(1)//B0019.

– EHK: 130208.

– Urtean sortutako kantitatea: 400 kilogramo.

Olioa birjartzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan; olio hidrauliko eta mekaniko erabiliak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoian jaso eta biltegiratzen da, baimendutako kudeatzaileari bidali arte.

○ 2. hondakina: «Berun-azidozko bateria agortuak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A231(1)//B0019.

– EHK: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,11 kilogramo.

Bateriak birjartzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan; beruna eta soluzio azidoa duten bateria erabiliak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako plastikozko edukiontzian biltzen da; zuzenean erretiratzen da baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

○ 3. hondakina: «Pila prismatikoak eta nikel-kadmiozko pilak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C5/7/11//H14//A231(1)//B0019.

– EHK: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,03 kilogramo.

Pila agortuak biltzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan; nikela eta kadmioa duten pila erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzi batean jasotzen da, sortzen den postuetan; ondoren, Arabako Foru Aldundiko bilketa-zerbitzuari bidali behar zaio.

○ 4. hondakina: «Botoi-pilak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16/22//H14//A231(1)//B0019.

– EHK: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 kilogramo.

Pila agortuak biltzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan; merkurioa duten botoi-pila erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzi batean jasotzen da, sortzen den postuetan; ondoren, Arabako Foru Aldundiko bilketa-zerbitzuari bidali behar zaio.

○ 5. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/5.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b/5//A231(1)//B0019.

– EHK: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,13 kilogramo.

Tresneria eta piezak garbitzeko eragiketetan sortzen da, instalatutako bi aplikazio-instazioetan; disolbatzaile erabili ez-halogenatua da.

Sortzen den puntuan jasotzen da zuzenean baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 6. hondakina: «Hodi fluoreszenteak eta sodio-merkuriozko lurrun-lanparak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/6.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A231(1)//B0019.

– EHK: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,11 kilogramo.

Lanparak birjartzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorra azpiprozesuan; merkurioa duten lanpara erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da sortzen den lekuetan; hortik zuzenean ateratzen da baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 7. hondakina: «II. taldeko hondakin sanitarioak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/7.

– Hondakinaren kodea: Q16//D15//S1//C35//H9//A231(1)//B0019.

– EHK: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,007 kilogramo.

Zerbitzu Medikuaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira.

Objektu ebakitzaile eta zorrotzak edukiontzi hermetikoan jasotzen dira eta botikak identifikatutako kutxan, baimendutako kudeatzaileari emateko.

○ 8. hondakina: «Uraren oinarriko koipegabetze-disolbatzailea».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/8.

– Hondakinaren kodea: Q7/D15//L21//C24//H5//A231(1)//B0019.

– EHK: 120301.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,53 kilogramo.

Mantentze-lan mekanikoen tailerrean piezak garbitzeko eragiketetan sortzen da; oinarri urtsua duten garbiketako likido alkalinoak dira.

Erabilera-puntutik zuzenean erretiratzen da, baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

○ 9. hondakina: «Azido-hondarrak dituen adreilu erregogorra».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/9.

– Hondakinaren kodea: Q8/D9//S40//C23//H14//A231(1)//B0019.

– EHK: 170903.

– Urtean sortutako kantitatea: 8.140 kilogramo.

Desugertze-upelen azido-hondarrak dituzten obra-hondakinak (erregogorra) dira. Mantentze-lanetan sortzen da.

Metalezko edukiontzi irekian biltegiratzen da. Zuzenean jasotzen da baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 10. hondakina: «PKB duten transformadoreak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/10.

– Hondakinaren kodea: Q12/D15//S-L10//C32//H6-7//A231(1)//B0019.

– EHK: 160209.

– Urtean sortutako kantitatea: 6.620 kilogramo.

Mantentze-lanen eragiketetan sortzen diren PKB duten olioak dira. Balazta-bidoietan biltegiratzen dira estalpean, gutxi gorabehera 1,5 m^3-ko gaitasuna duen altzairu-xaflazko kubeta baten gainean.

Zuzenean jasotzen da baimendutako kudeatzaileari entregatzeko.

○ 11. hondakina: «Ekipo informatiko zaharkituak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/11.

– Hondakinaren kodea: Q14/R4//S40//C6-8//H6-14//A231(1)//B0019.

– EHK: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Baztertutako ekipo elektriko eta elektronikoak dira (ordenagailuen pantailak, teklatuak, CPUak, etab.). Kartoizko kutxetan biltegiratzen dira eta baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko erretiratzen dira.

○ 12. hondakina: «Hozte-putzuetako lohiak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/6/12.

– Hondakinaren kodea: Q8/D8//L-P27//C24//H8//A231(1)//B0019.

– EHK: 100211.

– Urtean sortutako kantitatea: 103.860 kilogramo.

Uraren bidezko hoztearen zirkuitu itxia garbitzerakoan sortzen dira. Ez da biltegiratzerik gauzatzen, zuzenean ateratzen baitira sortzen diren lekutik.

● 7. prozesua: «Hondakinak elkartzea».

○ 1. hondakina: «Metalezko bidoiak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/7/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C51//H5//A231(1)//B9711.

– EHK: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 2,94 tona.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatuak dauden metalezko ontziak dira; orokorrean olioak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako toki batean biltzen da hondakinen biltegian.

○ 2. hondakina: «Plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/7/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(1)//B9711.

– EHK: 150110.

– Urtean ekoitzitako kantitatea: 2,57 tona.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuak eduki dituzten edo horiez kutsatuta dauden plastikozko ontziak dira; orokorrean, bainuetan gehigarri gisa erabilitako olio edo produktu kimikoak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako toki batean biltzen da hondakinen biltegian.

○ 3. hondakina: «Poto hutsak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/7/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5//A231(1)//B9711.

– EHK: 150110.

– Urtean ekoitzitako kantitatea: 200 kg.

Ontzi hutsak biltzeko eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; gai arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatutako metalezko ontziak dira; orokorrean pinturak, pintura gehigarriak eta disolbatzaileak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «Trapuak eta xurgatzaileak (gai arriskutsuz kutsatuak)».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/7/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C51//H5//A231(1)//B9711.

– EHK: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 13,62 tona.

Xurgatzaileak eta ehunak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan kodetzen dira; olioz bustitako trapuak eta gai xurgatzaileak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag-ean biltzen da, sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «Plastikozko potoak (pintura eta disolbatzaileenak)».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/7/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(1)//B9711.

– EHK: 150110.

– Urtean ekoitzitako kantitatea: 0,068 kg.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; gai arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatutako plastikozko ontziak dira; orokorrean pinturak, tinta eta disolbatzaileak eduki dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «Tintaren ontzi hutsak».

– Identifikazioa: A01140227/100005081/7/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(1)//B9711.

– EHK: 150110.

– Urtean ekoitzitako kantitatea: 50 kg.

Ontzi hutsak bildu eta elkartzeko azpiprozesuan sortzen dira; substantzia arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatuta dauden plastikozko ontziak dira; orokorrean, tinta.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Ondorengo hondakinak instalazioan sortzen diren instalazioaren andeletatik zuzenean bildu beharko dira, aurrez ontziratu edo biltegiratu gabe, kudeatzaile baimenduari entregatzeko:

- Azido nitriko agortua.
- Azido sulfuriko agortua.
- Ur azidoen neutralizazio-lohiak.
- Hozte-putzuetako lohiak.
- Disolbatzaile organiko ez-halogenatua.
- Uraren oinarriko koipegabetze-disolbatzailea.
- Koipegabetze alkalinoaren lohiak.

c) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa ere izango da.

e) Hondakin sanitario bereziak (II. Taldea) maneiatzeko, ontziratzeko, etiketatzeko eta biltzeko baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen 2002ko martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

f) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabete baino gehiago biltegiratu.

g) Hondakinak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea baimendutako kudeatzaile horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko.

Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

h) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena eginda dagoela, araudian zehaztutako aurretiaz, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

i) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak, horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

j) Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du sortutako industriako olio erabilia.

k) Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak.

l) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

m) Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, poliklorobifeniloa duela dioen adierazpena –azken ekitaldiari dagokiona– aurkeztu beharko du. Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituzten gailuak dituen artean, nahitaez aurkeztu beharko du urtero errege dekretu horrek araututako jakinarazpena.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

o) Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

p) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

q) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxien sor daitezen, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak neurri zuzentzaileak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

r) Aipatutako g), h) (kudeatzaileak EAEn daudenean), o) eta p) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

s) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten

hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Obra-hondakinak	170904	Obra xeheak	10 tona/urtean
Askotariko industria-hondakinak	100299	Fabrikaren garbiketa, labeen konponketak, produkzioa, arazketa-sistemak	70 tona/urtean
Garbiketaren herdoil-azala	100210	Garbiketa-upelak	5 tona/urtean
Herdoil-azala	100210	Hipertenplaketa-labeen zirkuitua	40 tona/urtean
Kobre eta brontzearen hondakinak	170401	Mantentze-lan elektrikoa	3 tona/urtean
Plastikoaren hondakinak	200139	Produkzioa	10 tona/urtean
Zuraren hondarrak	170201	Produkzioa	11 tona/urtean
Papera eta kartoia	200101	Bulegoak/Produkzioa	10
Hauts metalikoa	120102	Arazketa-sistemak	15 tona/urtean
Karbono-altzairu eta altzairu herdoilgaitzaren txatarra	160117	Produkzioa	1.143 tona/urtean
Putzu septikoaren lohiak	200304	Hobi septikoak	1,8 tona/urtean

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, baimendutako berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile bati.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiago biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez eduki ahal izango dira biltegiratuta.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehazten dituena. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak artxibategian gorde eta erregistratu beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak hauek nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak baimendutako zabortegi batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, datu hauekin: hondakin guztien kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak honako neurri hauek hartu beharko ditu:

● Erabiltzen ez diren petrolio-instalazioak eraitsi eta bajan ematea.

● Purgatzeen andelen baldintzak hobetzea.

● Errauste-gela eta bere makinak deuseztatu eta garbitzea.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera honako hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB(A) ere gehienezko baliorik altuenetan.

b) Jarduera honako hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB(A) ere gehienezko baliorik altuenetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB(A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-esparruaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferako isurtzeak kontrolatzea.

a) Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak botatzen dituen kutsatzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1000607-01	Pilger 1/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
2	1000607-02	Pilger 2/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
3	1000607-03	Pilger 3/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
4	1000607-04	Pilger 4/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
5	1000607-05	Pilger 5/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
6	1000607-06	Pilger 6/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
7	1000607-07	Pilger 7/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
8	1000607-08	Pilger 8/8	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte
9	1000607-09	5, 6 eta 7 upelak (koipegabetzea)	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NOx)	5 urte
10	1000607-10	1, 2, 3 eta 4 upelak (koipegabetzea)	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NOx)	5 urte
11	1000607-11	1 eta 2 upelak (1. gas-garbigailua)	Guztizko partikulak Guztizko kromoa Hidrogeno fluoruroa (HF) Sufre oxidoak (SOx) Nitrogeno oxidoak (NOx)	Urte 1
12	1000607-12	5 eta 6 upelak (2. gas-garbigailua)	Guztizko partikulak Guztizko kromoa Hidrogeno fluoruroa (HF) Sufre oxidoak (SOx) Nitrogeno oxidoak (NOx)	Urte 1
13	1000607-13	Soldatzea, galdaragintza	Guztizko partikulak	5 urte
14	1000607-14	Beroketa, koipegabetzea, desugertze-eremua	Karbono monoxidoa (CO) Nitrogeno oxidoak (NOx)	5 urte
15	1000607-15	Pilger 9	Azido klorhidrikoa (HCl) Konposatu organiko hegazkorrak (KOG gisa neurtuta) Guztizko partikulak	5 urte

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen

duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Ur sanitarioak	X: 500.103 Y: 4.765.383	pH, OEK, OEB5, solido esekiak, olioak eta koipeak, amoniakoa	Hiru hilero	Kanpokoa
2		X: 499.629 Y: 4.764.515			

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 255. artikulua) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Gas naturalaren kontsumoa	(KW gas natural/h)/Tm akaberako produktua
Energia elektrikoaren kontsumoa	(KW energia elektriko/h)/Tm akaberako produktua
Ur-kontsumoaren guztizkoa	m3 kontsumitutako uraren guztizkoa / Tm akaberako produktua
Sortutako guztizko hondakinak	Tm sortutako guztizko hondakina/ Tm akaberako produktua
Guztizko hondakin arriskutsuak	Tm hondakin arriskutsuak/ Tm akaberako produktua
Koipegabetzearen hondakinak	Tm koipegabetze alkalinoaren hondakina/ Tm akaberako produktua
Ijezketa-olio halogenatuaren hondakinak	Tm ijezketa-olioa hondakina/ Tm akaberako produktua
HNO3 hondakinak	Tm HNO3 hondakina/ Tm akaberako produktua
Guztizko hondakin geldoak	Tm hondakin geldoa/ Tm akaberako produktua
Zabortegirako hondakin geldoak	Tm zabortegirako hondakin geldoa/ Tm akaberako produktua
Birziklatzeko hondakin geldoak	Tm birziklatzeko hondakin geldoa/ Tm akaberako produktua
Inbertsioak MA-n	€ MA-n inbertsioak/ € Guztizko inbertsioak

C.4.– Zarataren kontrola.

Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak zarataren neurketak egingo ditu (kanpo-kontrola) kanpoaldeko puntu batzuetan, aurkeztutako agirien arabera hartuko diren neurri teknikoen baliotasuna ziurtatzeko, agiri horietan adierazitako fokurik garrantzitsuenen zaraten eragin negatiboak murrizteko.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak bi urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Bizkaiko Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak,

eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurtzeen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.22 epigrafea «Hodiak fabrikatzea»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, azido nitrikoa/sulfurikoa eta koipegabetze alkalino agortua, olio halogenatuak, disolbatzaileak eta abar maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

j) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.

k) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

m) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

n) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuri bat gertatzea eta isurtzeko muga-balioak gainditzea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

o) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.

- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

p) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzean, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta

ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako 0 ataleko honako puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.1.2 (isurtze ez-konfinatuen deskribapen-azterketa); B.1.2.2 (isurketaren adierazpena); B.1.3.1.g) eta B.1.3.2.c) (hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.1.3.1.m) (PKB izatearen adierazpena); B.1.3.1.p) eta B.1.3.2.e) (hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistroen eredua); B.1.4 (lurzorua babestearen inguruko baldintzak); C.1 (Atmosferara isurtzen diren kutsatzaileen kontrola); C.1.1 (Isurtze atmosferikoen erregistro-eredua); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (mantentze-lanetako isurtze eta hondakinen balioespena); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g) (Produktu kimikoen biltegiratzeen egiaztagiria); D.3.h) (Larrialdietarako materialen zerrenda); D.3.i) (Kubetak husteko maniobraren protokoloa); D.3.p) (Suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da, hala badagokio, instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Ondorio horretarako, ikuskapen-bisita egin aurretik, sustatzaileak baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen tekniko adituak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzaren aurrean.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak Ebazpen honen xede den hotzean ijeztearen bidez soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresari, Amurrioko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEN TXOSTENA

Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak Amurrioko (Araba) udalerrian sustatutako hotzean ijeztearen bidez soldadurarik gabeko altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratuaren prozeduraren baitan, ingurumen organoak proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea abiatu zuen eta alegazio-idazki bakarra aurkeztu zen.

Ondorengo ataletan egindako analisian agerian jarriko denez, Ingurumen Sailburuordetza honek erreferentziako instalazioaren ingurumeneko baimen bateratua ematerakoan, aurkeztutako alegazioetan proposatutako ingurumen-alderdi guztiak hartu dira kontuan. Horrela, proiektuan jasotako eta ingurumeneko baimen bateratuko prozedura honen bidez osatutako neurri zuzentzaileak, instalazioak sor litzakeen ingurumenaren gaineko balizko eraginak minimizatzera bideratuta daude.

Edonola ere, erantzun zehatzago bat eman asmoz, ondorengo txostena landu da.

Aurkeztutako alegazio-idazkian adierazten denez, urteak daramatzate Tubacex enpresatik eratorritako partikulen isurtzeak jasaten eta isurtze gehienak konoak iraultzetik eta karea garraiatzen duen uhaletik datozela azpimarratzen da. Isurtze horiek gerta ez daitezen eta ingurunea kaltetuko ez duen giro garbia bermatuko duten beharrezko neurriak hartzea eskatzen da.

Gogoetak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11. artikuluak ingurumeneko baimen bateraturen xedea honakoa dela xedatzen du:

a) Baldintzak ezartzea, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura baten bidez, izapideak erraztu eta partikularren karga administratiboak gutxitzearren.

b) Kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat izatea, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean biltzen dituena. Baimen horiek hondakinak sortu eta kudeatzeko arlokoak dira, udal-hondakinak eta hondakin arriskutsuak erraustekoak barne, eta hala badagokio, hondakinak isurtzekoak, ur kontinentaletara isurtzekoak, saneamendu-sistema integralera isurtzekoak eta lurretik itsasora isurtzekoak barne; baita atmosferaren kutsaduraren arloko ingurumen-izaerako zehaztapenak ere, konposatu organiko hegazkorrei dagozkienak barne.

Testuinguru honetan, gogoan izan behar da aipatu arauaren arabera, isurtzeko muga-balioak zehaztu ahal izateko, besteak beste, teknika erabilgarri onenak kontuan izan behar direla. Horrela, ingurumeneko baimen bateratu hau egiteko orduan, Europako Batzordeak 2006ko abuztuan metalak eta plastikozko gainazalak tratatzeko sektorerako egindako erreferentziako agiriaren (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics.) (BREF) edukia kontuan hartu da.

Horrela, ingurumeneko baimen bateratu honetan, lehenik eta behin, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresan dauden isurtze-iturriak identifikatzen dira. Zehazki, honako hauek dira:

● Errekuntza-prozesuetan sortutako isurtzeak (berokuntza-galdarak, hipertenplaketa-labeak, koipegabetze-beroketa, desugertze-pasibatze bainuaren beroketa).

● Ebaketa eta bizar-kentze eragiketetan sortutako partikulen isurtzeak.

● Lurrunen isurtzeak (ijezteko makinen, koipegabetzearen, desugertze eta pasibatzearen eta disolbatzaile bidezko garbiketa-eragiketen lurrunak).

Ondoren, Tubacex Tubos Inoxidables, S.A. enpresak airearen kalitatea babestearen inguruan bete beharreko baldintzak eta eskakizunak jasotzen dira. Horrela, «B.1.1 Airearen kalitatea babesteko baldintzak» atalean adierazten denez, lehenik, instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо. Ondoren, instalazioan dauden fokuak identifikatzen dira, eta horietako bakoitzean, indarrean dagoen araudi aplikagarriari jarraiki, errespetatu behar diren muga-balioak ezartzen dira. Zehazki, ondorengoa jasotzen da:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barruko diametroa	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	1000607-01	Pilger 1/8	15	0,4	C	500.152	4.765.204
2	1000607-02	Pilger 2/8	15	0,4	C	500.151	4.765.200
3	1000607-03	Pilger 3/8	15	0,4	C	500.153	4.865.206
4	1000607-04	Pilger 4/8	15	0,4	C	500.157	4.765.212
5	1000607-05	Pilger 5/8	15	0,4	C	500.089	4.765.210
6	1000607-06	Pilger 6/8	8	0,4	C	500.017	4.765.247
7	1000607-07	Pilger 7/8	8	0,4	C	500.017	4.765.247
8	1000607-08	Pilger 8/8	8	0,4	C	500.017	4.765.247
9	1000607-09	5, 6 eta 7 upelak (koipegabetzea) Gas naturaleko erregailua	12	1,2	C	500.042	4.765.275
10	1000607-10	1, 2, 3 eta 4 upelak (koipegabetzea) Gas naturaleko erregailua	12	0,3	C	500.098	4.765.242
11	1000607-11	1 eta 2 upelak (1. gas-garbigailua)	16	1	C	500.190	4.765.255
12	1000607-12	5 eta 6 upelak (2. gas-garbigailua)	16	1	C	500.197	4.765.250
13	1000607-13	Soldatzea, galdaragintza	3	0,2	C	500.160	4.765.276
14	1000607-14	Beroketa, koipegabetzea, desugertze-eremua Gas naturaleko erregailua	12	0,01	C	500.168	4.765.233
15	1000607-15	Pilger 9	0,82	0,28	C	500.017	4.765.247

Foku horiek ebazpen honetan aipatutako kontrolen mende daude, bakoitzaren katalogazioaren arabera, eta kontrol horiek baimendutako kontrol erakundeek egin beharko dituzte nazioarteko neurketa-arauen arabera. Edonola ere, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sail honek prestatutako «BKEen gutxieneko txostenean» jasotako gutxieneko edukia hartu beharko du kontuan.

Halaber, eta kontrol horiek gauzatzeko ezarritako maiztasunaren kalterik gabe, parametroen neurketak ez izatekotan, edo ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina zaharragoak badira, neurketak berriz egin beharko dira.